



BERDINBIDEAN PROGRAMAN PARTE

HARTZEKO BALDINTZAK

1. 10.000 biztanletik beherako udalerria izatea.
2. Berdintasunerako egitura egonkorrik ez izatea.
3. Berdinbidean programan parte hartzeko konpromiso onarpen orria alkateak sinatzea.
4. Berdinbidean programarekin elkarlanean aritzeko udaleko arduradun teknikoa eta politikoa izendatzea, berdintasuna bultzatzeak suposatu dezakeen lan zama kontutan hartuz.
5. Berdinbideanek Berdintasun Politiken inguruan antolatuko dituen prestakuntza-hausnarketa saioetan udaleko ordezkari politiko (alkatea eta arloen ardura daukaten zinegotziena) eta teknikoen partehartzea zihurtatzea.
6. Lan plangintza garatzeko Berdinbideanetik definitzen diren bilera eta foroetan Berdintasun Arloaren/gaiaren arduradun politikoak eta teknikoak partehartzea.
7. Berdinbideanen baitan adostutako lan plangintza, herriari egokituta, burutzea.
8. Martxoak 8, Ekainak 28 eta Azaroaren 25ari begira Berdinbideanen baitan landu eta adostutako deklarazio instituzionalaren onarpena burutzea Udalbatzan.
9. Datorren urteko aurrekontuan jorratu nahi diren lan ildoen araberako partida zehatz bat jasotzea berdintasun politikei zuzendua:
 - 2.000 biztanletik beherako herriek: 1.500 euro lan ildo bakoitzeko
 - 2.000-5.000 biztanleko herriek: 2.000 euro lan ildo bakoitzeko
 - 5.000-10.000 biztanleko herriek 3.000 euro lan ildo bakoitzeko